

#### 4. DIRU-ITURRIAK

Dakigunez diru-iturriak bi motakoak izan daiteke. **Ordainketa bakarrek**oa eta **ordainketa errepikaria**. **Ordainketa bakarrek**oa, dauden modalitatez zaharretako bat da, eta izenak adierazten duen bezala, une jakin batean ondasun bat erosteagatik egindako ordainketa da; adibidez, ordenagailua behar baduzu, dendara joan eta behin bakarrik erosten baduzu, ordainketa bakarra eginda egongo litzateke. **Ordainketa errepikaria**, erabiltzaileak produktu bat entregatzean edo zerbitzu bat ematean aldizka eta automatikoki ordaindu behar duena.

Atal honetan honako galdera egin beharko diogu gure buruari: zenbat eta nola ordaintzeko prest egongo da zuen bezero potentziala eskaintzen diozuen produktu edo zerbitzuaren truke.

Horregatik, guk ordainketa bakarra aukeratu dugu, bezeroek eskanerra erosi eta hasieran dena ordainduko baitigute. Horrela guretzat askoz ere erosoagoa da eta haiek ez dira zertan kezkatu behar hileroko ordainketaz.

Bestalde, aplikazioa ere badugu, baina doakoa izatea erabaki dugu, bestela gure enpresak ez luke etorkizun handirik izango. Orduan, aplikazioagatik ez dugu inolako ordainketa motarik aukeratu.

Gure proiektuari hasiera emateko inbertsio handia beharko du. Hasierako inbertsioa 25.000€-koa izango da eta diru hori bazkide bakoitzaren aurrezkietatik lortuko da. Zuzenean moda-dendetara saltzen duzuen produktu teknologikoa da, baina, aldi berean, zerbitzu bat ematen ari zarete zuena den software edo programarekin. Beraz, ekipoak (pantaila eta ordenagailua) prezio jakin bat du, instalatu ondoren kobratu dezakezuena, eta, bestalde, eguneratzen eta hobetzen joango zareten softwarearen truke, hilean zenbateko bat kobratu ahal izango duzue.

